

Campbell, L. (2011), “La investigación histórica de las lenguas aisladas, o ¿es raro el vasco?”

Campbellek artikulu honetan hizkuntza isolatuak (euskara adibide nagusi bezala baliatzen du) ez direla hain arraroak frogatzen du. Lehenik, hizkuntza isolatu bat tradizioan nola definitu izan den azaltzen du: ahaiderik ez duen hizkuntza bat da. Hizkuntza familiak, aldiz, kontrakoa: komunean duten ama hizkuntza batetik datozen hizkuntzak dira, elkarrekin multzo bat osatzen dutenak. Hizkuntza isolatuek, beraz, hizkuntza bakarrez osatutako hizkuntza familiak eratzen dituzte.

Isolatu modura katalogatu (izan) diren zenbait hizkuntza, ordea, hizkuntza familietan sartzeko arrazoiak badirela aipatzen du:

1) Badira, senide guztiak hil ondoren, bakarrik gelditu diren hizkuntzak. *Ket* hizkuntza, esaterako, honen adibide bat da: badira bere senide hilek utzitako lekukotasunak, eta honek hizkuntza isolatuen multzotik bereiztea ahalbidetzen du. Beraz, litekeena da ahaiderik ez duten gainerako hizkuntza isolatuek ere euren senideak hilda izatea, lekukotasunik utzi gabe, delako hizkuntza hau umezurtz utziz. Euskara honen adibide izango genuke. Akitaniera proposatu izan da euskararen ahaidetzarako hautagai modura. Bi aukera leudeke: a) akitaniera euskararen ama hizkuntza da, eta b) euskara eta akitaniera adar desberdinetako senide-hizkuntzak dira (biek ama hizkuntza bera). Lehenengo aukerari dagokionez, akitaniera duela 2000 urtekoa da eta hizkuntza bat bitan banatzeko 1000 urte nahikoak dira: haustura logiko honetatik euskarak soilik iraun du bizirik. Bigarrenari dagokionez, akitaniera eta euskarak desberdintasun formalak erakusten dituzte (Ingelesaren eta Gotikoaren arteko konparaketa erabiltzen du *euskara-akitaniera* harremana azaltzeko): biak protoeuskararen alabak lirateke.

2) Badira gerora deskubritu diren ahaideak, hizkuntza isolatua familia hizkuntzetan sailkatuz (japoniera, esaterako). Euskara ere kasu bat izan daiteke: aitzineuskaratik hona nahikoa denbora igaro da hizkuntza zatitzeko. Batzuk diotenez, euskalkien arteko desberdintasunak nahikoa dira euskara familiazat hartzeko (euskalkiak hizkuntzak lirateke).

Ondorioz, hizkuntza isolatuen eta hizkuntza familien artean ez dago alde handiegirik.

Sailkatu gabeko hizkuntzak ezin dira hizkuntza isolatuekin nahastu. Sailkatu gabeko hizkuntzen artean bi sail daude: a) ezagutza urriko hildako hizkuntzak, eta b) bizirik dauden ezagutza urriko hizkuntzak.

Munduan 115 hizkuntza isolatu daude. Hizkuntza familiak 350 direla kontuan hartuta (hizkuntza isolatuak barne), hizkuntza isolatuek %33a osatzen dute: ez dira hain arraroak.

Hizkuntza isolatuek historiari ez dutela esan izan da. Baina ohiko konparaketa erabili ordez, bestelakoekin egin daitekeela frogatu da: a) Barneberreraiketa; b) Lekukotasunen ikerketa filologikoak; c) Dialektoetan oinarritutako berreraiketa konparatua; d) Maileguen analisiak; e) hizkuntz eremuak (lingüística areal); f) *Wörter un Sachen* (hitzen zatikatze bidezko azterketa).

Wörter un Sachen-en hiru adibide: 1) *garagar* + *ardo* (>*garagardo*): hitzak berak esaten digu euskaraz *ardo* hitza *garagar* baino zaharragoa dela; 2) Toponimo “gardenak” berriak (*Artibai* < *arte* + *ibai*) / “lausoak” zaharrak (*Atturri* < ?); 3) morfema emankorrik ez daramaten hitzak zaharragoak emankorra daramatenak baino (-*di* ez da emankorra, beraz, *zaldi* zaharragoa *zamar*̄*i* baino).